

txintxonga



2004ko azaroa- 15. alea

AMOROTO ESKOLAKO ALDIZKARIA

ESKOLAKO BERRIAK

AZTERKOSTA

Urtero bezala , egingo dugu Ogellan Is-pasterreko hondartzan. Eskolako L.H.kook joango gara. Hondartza guztia aztertuko dugu.Hondartzan aurkitzen ditugun zaborrak bilduko ditugu. Ekintza honetarako jantzi egokia eramango dugu.



LIBURU IBILTARIAK

Aurreko ikasturteetan bezala ,aurten ere , Katxalin pirata etorriko da.Aurten

bi saio egingo ditu : 12:00 etan haur hezkuntzakoentzako eta 14:30 etan lehen hezkuntza guztiarentzako.

Uste dugu, aurten ere liburuen altxorrean ipuin berriak utziko dizkigula

HERRIKO BERRIAK

KZ GUNEA AMOROTON

AZAROAN MARTXAN IPINIKO DA KZ GUNEA AMOROTON. LUDOTEKAKO GELAN EGONGO DA.

KZ GUNEA ORDENAGAILUA ETA INTERNET ERABILTZEN IKASTEKO LEKUA DA.



HERRI BATZARRA

AZAROAREN 28AN HERRI BATZARRA EGONGO DA MEZAREN OSTEAN KULTUR ETXEAN.



ZORIONAK !

MIKEL-AZAROAK 11
UNAI-AZAROAK 18

ZER EGIN BARRUAN DARAMAGUN HAUR HORI, HAIN AHAZTURIK DUGUNA, BERRESKURATZEKO?

- Emozioak bizi. Horretarako dira: bizi izateko. Ez ito eta ezta goraipatu ere. Lau emozio dira funtsean: beldurra, amorrua, tristura eta alaitasuna. Baina hain azkar debekatu ziguten horiek sentitzea eze, gure bizitzako trastelekuan pilatu ditugu. Eman diezaiozun geure buruari beldurra sentitu eta onartzeko eskubidea, amorrua ez debekatu eta tristura eta alaitasuna forma guztietan onartzeko eskubidea. Besteenganako eta geure oreka pertsonalarekiko errespetua da muga bakarra.
- Garatu dezagun intuizioa, arrazionaltasunarekin hain zerikusi gutxi duela iruditzen zaigun seigarren zentzua. Ñabardurak antzeman, egoerak interpretatu eta jokaerak diseinatzeko gaitasun hori dirudiena baino emankorragoa da.
- Aska dezagun sormena. Aldendu arauetatik, ikasitakotik, bide jakinetatik garamantzaten gauzak albora utzi. Marraztu, pintatu, modelatu, kantatu, puntua egin, musika tresna bat jo, landareak nahiz zuhaitzak hazi, bildumak egin, idatzi ...hainbeste aukera erakargarri dago aisialdirako!
- Jakinmina ez galdu. Ireki tripak bizitzako jostailuei. Ezagutu ditzagun bazter, pertsona eta liburu berriak. Geuregana ditzagun beste jakintza, iritzi eta kultura batzuk.
- Eman diezaiozun aukera gehiago gure alde biologikoari, sensualari. Gorputzarekin, sexuarekin jolas egin dezagun. Kirola egin, kanpoan gozatu, dantza egin. Bakoitzak nahi duena.
- Jolas egite hutsagatik jolas egin, jolasaren plazer hutsagatik; ez lehiagatik edo irabaztearren. Jolasik sedentarioenak zein aktiboak, gutxiegi espresatzen diren emozioak bideratzeko balio du. Eman aukera bat barreari.
- Babesgabezia-sentimenduak onartu. Ikas dezagun laguntza eskatzen eta bilatzen, babestu eta zain gaitzaten uzten. Horrek ez du gure ustezko duintasuna eta sendotasuna gutxiesten. Besteei guri laguntzeko zenbat eta aukera gehiago eman, orduan eta garrantzitsuago izango gara haientzat eta orduan eta onartuago eta seguruago sentituko gara.
- Aprobetxa eta bultza ditzagun irudimena eta abentura lantzeko aukerak; eta gozatzeko gaitasuna garatzeko aukerak, jakina.
- Ez ditzagun alferrik galdu ondo pasatzeko aukerak. Gaurkoa egun handia izan daiteke, bihar arte itxaron gabe.